


# ANAITASUNA

233. zenb.

1972.eko Apirilaren 30ekoa

Encarnación, 19. (Artetxu) - BILBAO-6  
Teléfono 33 19 97 - Apartado 495



"DARDARA" (Txillida)

**gizona, lana, makina...**

## MAIATZAREN LEHENA

Maiatzaren lehena dela eta, ba dirudi, langilegoari buruz ezer esan gabe gelditzea ez dela legezko. Bestalde, langilegoaz era askotara berba egin daiteke. Dena dela, oraingo honetan gauza simple batzuk baino ez ditugu esango.

Kalkulu zehatzik esku artean ez dugun arren, populazioaren 100eko 80 bat lanetik bizi dela esan genezake. Lanetik diogunean, lansaria baino beste irabazpiderik ez dutela esan nahi dugu. Hau da, ez akziorik, ez lurralderik, ez ezelako\* errentarik. Bestalde, egiten duten lana ez da, asko pagatzen den hoietariko: piontza lana da. Denok dakikegunez,\* «peón ordinario, peón especialista, oficial de tercera» delakoak, guti asko, piontza sailean ezar daitezke. Azken hauk\* dirateke populazioaren 100eko 80 bat.

Jende hoiien artean gehien irabazten dutenek, batez beste 9.000 pezeta eskuratzen dituzte hilabetero, ordu extraordinarioak, plurienpleguak eta abar kontatuz. Honetaz oharturik, sarritan pentsatu izan dugu, nolako mirariak egiten dituen jendeak, bizi ahal izateko.

Baina ez dugu jendearen errukia eragiterik nahi. Inoiz aldizkari honetan esan dugunez, aipatu dugun egoera honek langileen burrukaldiak gogoratzera eramaten gaitu. Eta horixe baino ez dugu aditzera eman nahi maiatzaren lehen egun honetan. Izan ere, langileen egoera latza ez du errukiak ez borondate onak aldatuko, buruz eta zientziaz jokatzuz, langileen beren ekintzak baizik.

ANAITASUNA

**DURANGOALDEA**

Ihaz\* bezala aurten ere, lorretako Goiuri hauzunean, eskualdeko\* Umeen II. Eguna ospatuko da. Gerediaga elkargoaren\* babespean eta herriko gazteek antolatutako, 300dik gora bilduko dira, euren dantza, jolas, kantu eta abar agertzeko. Eginkizunari bederatzia eta erdietan emango jako hasiera, lorretan danak elkartzuz. Hamarrak eta erdietan, umeek zuzendutako meza. Gero dantza saioak eta bazkaria. Jatekoa eroaten dabenei, salda eta kafea eskainiko dautsez herriko gazteek. Arratsaldean jolas, kantu, antzerki eta abar ikusi ahal izango dira, seirak arte. Hauzune honetan, jan-edantoki antzerako bat zabalduko ei dabe.

Elorrión, Abadinon, Durangon, lorretan eta Bernan, euskal alfabetatze ikastaroak hasi dira. Berritzen, Otxandianon eta Zaldibarren ere hasteko ei dira.

Eskualdeko txistulariek Bolibarren ospatu nahi izan eben San Jose eguna, herria apur bat alaitu nahiz. Baina Bolibarko noredonor iratzartuko ote ebela eta, Otxandianora bidalduak izan ziren. Azken orduan, harako ere ezetza etorri jaken.

Durangoko «Tabira Mendi» elkarteak, maiatzaren 21-erako, ostera\* bat antolatu dau Aiako haitzetara.

Egun honeetan mila kritika entzun dira Durangon, zuhaitzen\* adar mozketak dela eta. Zuhaitz ederrak enborhuts bihurtu ditue, adar berriak sorterazi nahiz.

Durangon bertan kafetegi berri bat ireki dabe, eta beste hiru irekiko dira.

Durangoko «Astarloa» zineman, «Anexa» balletaldea ihardun izan dau apirilaren 19an. Donostiako talde honek, beste batzuen artean, Guridiren «Diez Melodías Vascas» dantzatu eban.

Matienatik Abadinora eta Durangotik Orozketara doazen bideak konpontzen ari dira. Ba dago beharrezana, Durangotik Matienara doana zabaltzeko ere.

JOAN

**ATAUN****Zenbat garen**

Gure herrian zenbat bizi diren azalduko dut orain: San Martinen 1.423, San Gregorion 711, eta Aian 240. Ataunek hiru hauzo, hamaika hauzune, 2.374 bizilagun eta 18 km<sup>2</sup>. ditu. Herri handi xamarra, ez da?

**Santimamiñera**

Apirileko egun batetan, Santimamiñeko kobak ikustera joan ginen gaztetxo sail bat, Jose Miguel Barandiaran jaunarekin. Gauza asko ikasi eta ikusi ondoren, ilunabarrean itzuli ginen etxera.

**Pelota jokoa**

Pelota partiduak egingo dira San Gregorion. Parte hartzaileak Ataungo 12-15 urteko gaztetxoak izango omen dira. «Arnasa Berri» gaztetxo taldeak eraturiko txapelketa da. Ekintza polita. Ea, bada, nortzuk ateratzen diren txapeladun.

TRIKUARRIETA

**Enrike Zelaia soinularia Lizarran**

Enrike Zelaia ausposoinulariak ihardunaldi bat eskaini eban Nafarroako Lizarran,\* apirilaren 13an.

**SANTUTXU**

Gauza ona da alaitasuna eta poza. Horixe, hain zuzen ere, izan genuen geure hauzoko bi jaialditan.

Lehen jaialdia, Berri-Otxoa ikastetxean eta hauzoko haur guztientzat izan zen. Hona hemen egitaraua:\* Apirilaren 7an, ostiralez,\* kuadro pintatzaileen lehiaketa ageria. Horrez gainera, haurrek antzerki txiki batzuk jokatu zituzten. Apirilaren 8an, larunbatez,\* pintatzaile zeingehiagokaren epaiketa. Bitartean, haurrentzako jolasak eratu ziren. sokatira, lasterketak, eta abar. Apirilaren 9an, igandez, Abril mendira ibilaldi neurtua. Gero eguerdian sarien banaketa.

Bigarren jaialdia Mallonako zelaian izan zen, apirilaren 15ean. Ikastolaren alde laguntza zerbait lortzarren, partidu bat eratu zen, «Athletic» eta «Real Sociedad» taldeetako jokalariek zaharrek parte hartzen zutelarik. Partidu ona izan zen; bai eta atsegingarria ere. Arratsean, afari bat eskaini zitzaion futbolariari, eta afalondan bertso batzuk kantatu zizkien bertsolari gazte batek. Bertsoen gaia anaitasuna izan zen, eta norberekeria eta etsakeriaren utzi beharra. Gero jaitxoak luzatu egin zen, inguruetatik ibiliz eta kantatuz.

BEZI

**MUNITIBAR****Eskola batzeak**

Bizkaian ere ba dabilta, eskualde\* bakoitzeko eskolen biltzea egiten. Gure Markinaldean ere bai. Munitibarrerri dagokionez, oraindik ez dakigu, hemengo umeak nora joango diren. Lehen esaten zanez, Lekeitiora edo Markinara; baina azken sasoi honetan dinoenez, Markinara edo Gernikara.

Eskolako umeen gurasoen eritziak bildu ondoren, erdiz erdi irten\* da, baterako eta besterako nahia daukenez gogo. Ez dogu ahanztu behar, Munitibar beti, eta orain ere bai, Markinaldea izan dala, eta ez Gernikaldea.

Ba egoen lehen beste plan bat: Aulestikoak eta Munitibarrekoak herri batean edo bestean batzea. Baina plan hori herri bakoitzaren norberekeriagatik hondatu zan.

**Aste Santuko prozesioak**

Aurten arte, Aste Santuko elizkizunak Gerrikaizko eta Munitibarreko parrokia bietan egiten ziren, eliza batetik bestera prozesioa eginez. Elizkizun erdia batean eta beste erdia bestean, batean hasi eta bestean amaitu. Aurten, ostera,\* prozesioak kendu eta Ostegun\* Santuko elizkizuna Munitibarren egin da eta Ostirale\* Santuko Gerrikaizen.

**Pelotari eskolak**

Bilboko «Club Deportivo»k eratuta eta herriko Ondamendiko Xabier irakasle dalarik, zesta puntaz jokatzen ikasi nahi dabenek guztientzat, pelotari eskolak hasi jakuz.

Portugaleteko nautika eskolan ikasketak eginez batera, laster Gerrikaizko Txorieneko Juan Karlos Bilboko frontoian palaz jokatzen hasiko dalako zurrumurrua heldu jaku.

**Herriko jaiak**

Laster datorkiguz herriko jaiak ere; eta, dagoeneko, arduradunak zer egin ahal dan pentsatzen hasita egongo direla uste dogu. Guk ezertan Bilbotik lagundu ahal badautzuegu, prest gagoz zuen alde zerbait egiteko.

ERRAMUN GERRIKAGOITIA

## Fedea eta ideologia (2)

Kristau fedea eta ideologiazko fedea gauza guztiz desberdinak dira, noski.\*

Ideologia, definizioz, zerbait erlatiboa da eta iheskorra. Gizarte konkretu bati loturik dagoena.

Kristau fedea, berriz, absolutoaren eskaintza da eta agintza. Nahiz eta misteriozko eta izkutuzko moduz izan, kristau fedea esannahi absoluto bat ezartzen dio gure biziari.

Kristogan sinesteak, ideologi sailetik kanpoan jartzen nau, hasieratik. «Nire erregetza ez da mundu honetakoa» esanez, historia eta ideologiaren erreinua baino beste erreinu sakonago eta iraunkorrago bat erakusten dauku Kristoren hitzak.

Honek ez du esan nahi, hala eta guztiz ere, kristau fedea ideologiaren balorea ezeztatzen duenik. Zorakeria izanen litzateke, kristauak ideologi gabeko mundu batean bizi nahi izatea, gorputz gabeko fantasma bat bezala.

Gizon bezala esistitzeko, ideologia bat (hau da, hizkuntza bat, irudipen, ideia, balore eta errepresentazioen sistema bat) behar du gizonak. Ideologiarik gabe ez dago egiazko giza bizitza. Althuser-ek berak, klase gabeko gizarteak ere ideologia bat izango duela uste du.

Gorputza da gizonaren lehen kondizionamendua. Neure gorputzetik ez dut eskapatzerik, heriotzearen bidez ez bada behintzat. Baina gure bigarren kondizionamendua, ideologia da. Eta hemendik ere ez omen\* dut eskapatzerik.

Egia osoa, hau izango ote da? Ez dut uste. Kristau fedea arauera,\* ba dago zerbait, gaurko eta betiko gizonaren barnean, ideologia guztien gain dagoena. Gizona ez dago, beraz, ideologiaren sailean guztiz murgildurik.

Kristauok, zerbait horri «izpiritu» izena ezarriko genioke.

Gauzak asko —bai eta gehiegi ere— sinplifikatzen uzten bazaiku, bi formula emango genituzke gizonarekikoak:\* bata marxista eta bestea kristaua.

Formula hauetan, **gorputz** hitza esannahi zabal batez erabiltzen dugu, jakina.

Biologiako eta fisikako mugatze guztiak, behar materialak, subkontzientziaren jokoa eta abar, **gorputz** izenpean jartzen ditugu.

Gauza bera esango dugu **ideologia** hitzari buruz. Ideologiaren izenpean, arraizoa, zientzia, teknika eta gizarteko harremanetatik datozen jakintza eta asmazio guztiak ipintzen ditugu.

Konbenio hauekin nire bi formulak honako hauk\* izanen lirateke:

Gizona = Gorputza + Ideologia

Gizona = Gorputza + Ideologia + Izpiritua

Lehen terminoak, gorputzak alegia,\* beharrezko munduan jartzen gaitu, izaki\* materialak garelako. Bigarren terminoak, ideologiak alegia, zientzia, deretxo, Estatu eta gizarteko munduan jartzen gaitu; eta hau ondo dago, izaki sozialak garelako.

Hirugarren terminoak, izpirituak alegia, beste mundu batean jartzen gaitu; eta hau ere ondo dago, beste bi termino haiekin gizona ez baitago oraindik osaturik.\* Egiazko libertatea, fedea eta itxaropena eta biziaren azken esannahia ez baitira agertzen ideologi sailean.

Sobera\* dakit, ideologiek izpiritua, pertsona, misterioa, absolutoa eta abar mitologiak hartzen dituztela, zientzia eta ideologia besterik ez baitute onartzen.

Izpiriturik gabe, ordea, egiazko libertaterik ez da esistitzen, gizona gizartearen zati bat besterik ez denez gero.

Fedea ez da, beraz, ideologiaren elemento bat. Fedea ez da ideologia bat. Ez eta zientzia bat ere. Alde honetatik, fedea erreinua ez dela mundu hoietakoa esan dezakegu.

Izpiritu deitu dugun hirugarren maila ukatzen badugu eta geure biziaren erabateko\* esannahia guztiz ukatzen badugu, gizonaren bizia absurdo bat bihurtzen da. Eta gizonok «una procesión de fantasmas que van de la nada a la nada» besterik ez gara, Unamunok esaten zuen bezala.

Giza biziaren helburutzat\* gizarte burruka ematea, ez zait iruditzen posible. Zertarako izanen litzateke gizarte burruka, gizonik, egiazko gizonik ez bada esistitzen? Zertarako hainbeste min, hainbeste sufrimendu? Dena alferrik! Eta gizonaren bizia absurdorik haundiena!

Absurdoaren aurrean bi jarrera har daitezke. Bata esistentzialista, bestea kristau fedea. Edo absurdoan bertan bizi eta hil, edo absurdoaren kontra burrukatzea.

Bigarren hau da fedea jarrera. Sinestea, absurdoa ukatzea da. Absurdoaren ukazioa.

KARLOS SANTAMARIA

dauku, **dauku**, digu  
dezakegu, **daikegu**  
dio, **dautso**

genioke, **geunskio**  
genituzke, **geunkez**  
zaiku, **jaku**, zaigu  
zait, **jat**

### Juan San Martin euskaltzainaren mintzaldia Elgoibarren

Juan San Martin euskaltzaina\* «la literatura vasca desde el período romántico hasta hoy» gaiari buruz mintzatu zan Elgoibarren, joan dan martxoan, «Centro Uribartarte» etxean.

#### ANAITASUNA Bizkaia Hamabosterokoa.

**Zuzendari:** Anjel Zelaieta.

**Zuzentzaile:** Imanol Berriatua.

**Idazkola eta banakolaren buru:** Josu Torre.

**Bulegoak:** Encarnación 19, Bilbao-6.

**Inprimatzaile:** AMADO, Mazarredo 35, Bilbao-9.

**Irarle:** RALI, Particular de Costa 12-14, Bilbao-10.

**XX. urtea.**

D.L.: BI-1.753 - 1967.

## Grezia. Hasierak eta Homeroren haroa (1)

### HASIERAK ETA HOMEROREN HAROA (1)

Greziako lehen poesia, garai primitibo guztietako poesia bezala, formula magiko, erregu, otoiitz eta gudu eta lan kantaz osatzen da. Poesia hauek alde komun bat dute: talde poesia rituala direla. Garaiko kreaizaileen poesia, anonimoa zen eta herri osoari zuzendua. Guztienak zirèn ideiak eta sentimenduak adierazten zituen. Poemak taldeka kantatzen ziren, eta ez bakarka. Arte komunitario hau, ia klase diferentziarik ez duten gizarte primitiboen karakteristika da.

K. a. XVI. mendearen\* inguruan, herri gerlari batek, akeoak, Grezia inbaditzen duenean, poesiaren funtzio soziala eta poetaren egoera soziala zeharo aldatzen dira. Akeoek, harmaz hartu zituztèn lurraldeetako herriak domeinatuz eta hauen aberastasunaz baliatuz, aristokrazia gerlari bat osatu zuten. Aristokrazia honek munduari buruz zuen eritzi profano eta indibidualistak, mami berri bat ematen dio poesiari, poetari gai berriak proposatuz. Poeta ez da jadanik\* anonimoa. Poesiak, lehen zuen karakter ritual kolektiboa galtzen du. Haro\* honetako «heroeak», akeotar errege eta nobleak, ohoin\* eta pirata ziren, «hiri sakeatzaile», beren buruez zioten bezala. Haien kantak profanoak dira; eta Troiako leienda famatua, haien bidegabekeriaren glorifikazio poetikoa besterik ez da. Bizitzeaz zuten ideia libre eta irreberentea, haien ofizio gerlariaren, erdiesten\* zituzten garaipenen eta sufritzen zuten kultur aldaketa etengabeen ondorioa da. Hau ikusirik, beren asaben erlijioa uzten dute; baina bentzutu duten herriarena ez dute bereganatzen, hain zuzen herri bentzutu batena delako. Egoera osoak, tradizio eta eskubide guztiak ukatzen dituen indibidualismo gogor baterantz bultzatzen du jende hau, dena gorputzaren indarraz lortzen\* dela uste duen jende gerlari hau.

Eboluzio honen arauera,\* akeoen poesia ez da jadanik herrikoa, ez talde baten lirika, destino indibidualari buruzko kanta indibidual bat baizik. Poesiaren eginbeharra ez da jadanik lan edo burruka egin eraztea, baizik heroeak atsegintzea, haien izena goratzea, haien gloria eta ospea aditzera ematea eta mendez mende irauten lortzea. Gainerako helburu\* guztiak bigarren mailakoak dira. Poesiaren gaiak ez dira zirimonia magikoak, gudu irabaziak eta harrapakin\* konkistatuak baizik. Poemek lirikotasuna galtzen dute, epiko bihurtuz. Alde honetatik, hau da Europan ezagutzen dugun poesia profano zaharrena.

Poema hauk\* gudu gertakariaren kronika bilakatzen\* dira. Baina kronika hau erdi historia erdi leienda dira, eta, elementu epikoekin batera, lirikoak eta dramatikoak azaltzen dira. Poema hauek osatzen dute Homeroren epopeietako lehen oinarria.

Lehen esan dugunez, poema heroikoa pertsona bakar batez ari da, eta gainera pertsona bakar batek kantatzen du. Ba dirudi, hasieran gudulari berberak direla poetak eta kantariak. Horrela, poesia berriaren kreaizaileak, publiko bezala, klase agintarikoak dira. Baina berehala kantari profesionalak lehen garaietako afizionatuak baztertzen dituzte. Kantari profesional hauk, bardoak dira. Bardoek molde landuago eta artistikoago batez hornitzen dituzte poemok; erregeren kortekoak dira, eta heroeek beren paretzat hartzen dituzte. Baina gizarte aristokratikoko bardo hauen ondoan, ba dirudi, ba zirela beste batzuk ere, arloteak, azoketan\* ihardukitzen zutenak, gertakari ez hain heroikoak kantatuz.

IBON SARASOLA

dezan, **daian**

dio, **dautso**

zioten, **inoen**, esaten zuten

## Egiazko askabidea

Orain duela bi hilabete edo, ANAITASUNAn idazlan jakingarri bat idatzi zuen Jenar Garatek.

Idazlan hartan zioena, hau zen: Ekonomian ez dugula hauzia zintzoki aztertzen; zezenari ez diogula adarretatik heltzen; ekonomia aurrera doala, nolabait ere, eta horrekin pozten garela. «Ba diabilak, mutilak!» esaten diogu elkarri eta horrekin bakean gelditzen gara.

Baina nora doa ekonomia? Hara, guttitan galdetzen duguna. Ekonomiaren gurdian gabiltzanok, ez ote gara azkenean amiltegian,\* gurdi eta guzti, hankaz gora eta zilipurdika ereriko?\* Gure ekonomia honek ba ote du irtenbiderik?\* Horra hor, aidean zintzilikaturik harat honat dabiltzan galderak.

Zoritxarrez, holako makalkeriak\* ez zaizkigu ekonomi alorrean\* bakarrik gertatzen. Beste arazo askotan ere, galdera-malderetan, erdipurdikerietan ibiltzen gara, lasai asko ibili ere.

Hara non dadukagun kulturaren hauzia. Euskara bizi omen\* da, ikastolak aurrera omen doaz, liburuak ugarriago argitaratzen omen dira. Eta kito! Besterik gabe, denak pozik eta lo.

Ez dugu kemenik, geure egoera negargarria erro errortik aztertzeke, geure hutsune et larrialdiei pizkor oldartzeko.\* Erabaki sendo bat hartzen ez badugu —eta ez ahantz,\* erabaki **ebaki**-tik datorrela—, ez ote gara guztiok, ikastolak eta guzti, erdal erresuman\* buruz behera jausiko?\*

## BEHAR DUGU

**Maisu eta Lizentiatu titulodunak, ikastola batean irakaskintza emateko.**

**Derrigorrezkoa euskara jakitea.**

**Idatz zazue ANAITASUNARA, «curriculum vitae» bidaldurik.**

Orain arte lortu\* dugunaren usain goxoaz ez gaitzala loak har. Ikastolak ez bitez lobelarra bihur. Hori hasiera hasiera besterik ez da. Euskal Herri osoan euskara sartu arte, batxileratoa eta Unibertsitatea euskaldundu arte, kinka larrian gaude. Geure egoera negargarritik irteteko,\* ezagutu egin behar dugu geure burua, eta, ezagutzeko, aztertu.

Euskal ekonomistei ekonomiaren azterketa sakon bat eskatzen diegu; eta euskaltzale jakintsuei, euskal kulturaren makalaldirako benetako sendagaia aurkitzea. Adabakirik\* ez dugu nahi. Horretarako, estudia, ikas eta egia bildurrik gabe esan.

JONDONI ZABALBURU

bitez, **beitez**

diabilak (jabilk, zebilek), **dabil**

diegu, **dautsegu**, diotegu

diogu, **dautsagu**

gaitzala, **gaizala**

gaude, **gagoz**

zaizkigu, **jakuz**

zioen, **inoan**, esaten zuten

### Zamalloa apaiza Durangora

Jose Antonio Zamalloa apaiza Durangoko serora\* karmeldarren kapellau izendatu berri dabe.

### Jose Ramon Longarte txirrindularia hil da

Jose Ramon Longarte, bizkaitar txirrindulari\* gaztea, 20 urte beteberri zituala hil da. Joan dan hazilaren\* 21ean bide istripu\* bat izan eban, eta harrezkero 135 egunetan konorta\* galdurik egon da.

### Ingalaterrara haurrak galtzera

Espainako ginekologoaren artean eskribu bat zabaldu berri da, zera dinoana: «Espainiako medikuei aditzera ematen jake, gurekin, Ingalaterrako medikuekin akort jarzkeko, abortoak egin nahi dituenen. Irabazien honenbesteko bat emango jake, haurra galdu gura\* dauan emakumea guregana bidaltzen dauskuenei». Berri hau Bilboko «El Correo Español - El Pueblo Vasco» egunkarian agertu zan apirilaren 4ean.

Notizia hau agertzeaz batera, abortoaren gaia darabilan «El derecho a la vida» izeneko pelikula ematen ari ziren Bilbon. Umea galtzea —bai gobernuaren eta bai Elizaren aginduz debekaturik dagoena— jendearen ahotan dabil, eta itxuraz egiteetan ere bai.

### Aita Mokoroa lanean

Pena haundiz genekusan,\* nola aita Justo Mari Mokoroa eskolapioak, hainbat urtetan, Euskal Herri osoan zehar\* bilduriko esaerak, horretarako biderik ezaz, argitara eman gabe gelditzen ziren. Baina zorionean eskolapioen nagusiek, lan horri beste gabe ekin dakion, gainerako beste zeregin guztietatik askatu dute; eta, daki-gunez, jo eta ke ari zaiku aita Justo Mari esaera lan honetan, bere hirurogei eta hamar urte gorabehera.\*

Zenbait\* pertsonak diru laguntasuna eskaini diote; baina beste askoren bultzada ez letorkeo inola ere gaizki. Ea, bada, euskal mezenok! Hor duzue, bihotzez laguntzea merezi duen obra bat. Zuen da erantzuna.

Eta amaitzeko, esan dezagun, aita Mokoroak 1936. urtean *Ibar* ezizenaz argitaraturiko «Genio y Lengua» liburu bikaina, honetan azal berriaz, berriz agertu dela salgai dendetan.\* Egiaz irakurtzea merezi duen obra bat dela uste dugu, inori kalterik eginen ez diona.

### Deustuko erretorearen erantzuna

Jakin dugunez, Deustuko Filosofia-Letretako estudianteeek erretoreari egindako eskabidea —hurrengo programa berrian, euskara, euskal linguistika, -historia, -arte eta abar jar dadinekoa— nolabait erantzuna izan da.

Erretoreak emandako arrapostuan,\* oro\* har, ihesbideak eta aitzakia ugari nabari\* daitezke; baina euskara irakasteari —berau eskolako eta ez Unibertsitate bateko arazoa dela aipatuz— egiten dion ihardespena\* ez dugu uste zuzena denik.

Eskolak egindako hutsuneak, hain zuzen ere, Unibertsitateak bete behar ditu, beteko badira. Gainera, hizkuntza bat «hasieratik» irakastea *ba da* Unibertsitatearen zeregina, arabe, frantses, aleman, ingeles eta beste hizkuntzekin Deustuan bertan egiten den bezalaxe. Euskara beste hizkuntza modernoaren parean ipintzeko eskatu bazen, zertara dator aitzakia hori?


Dena dela, eta erresultatuak ikusi arte honek kontsolatzen gaitu, ba dio erretoreak, ahalik eta gehien eginen duela. Hala biz,\* eta ez bada ... orduan ordukoak.

### ANAITASUNAREN irakurle bati

Gure lagun zintzo horrek, jakin ezazu, Bizkaiko «bainak» Gipuzkoako «lekak» direla.

### Esfinge berriaren igarkizuna

Mikroherriko mikrolagunen arteko mikromultitaldeen mikroindarren mikroeragina gero eta mikroagoa da; eta makromonotaldearen makroindarraren makroeragina gero eta makroagoa. Noiz konturatuko dira mikroherriko mikrolagunen arteko mikromultitaldeak, beren mikroindarren mikroeragina monomakrotu behar dutela, makroindar bat lor\* dezaten?



BIZKAIKO AURREZKI KUTXAK Bilbon eta Probintzia guztian, laguntzarik zabalena ematen dihardu gizarte preminetarako, eta osakuntza arloan laguntasunik jatorrena.

ZURE DIRUGORDETZERAKO:

### Caja de Ahorros Vizcaina

Ofizinarik behinenak: Plaza de España, Bilbao

Teléfono 24 36 00 (bide ugariak) - 21 12 90

URIAN, 16 AJENTZIA

Probintziako herririk nagusienetan 70 etxeordezko

Madrileko ajentzia: I. C. C. A. Alaclá, 27

Teléfono 2 21 49 95

IMANOL BERRIATUAK

# Nori gabeko eskutitzak (6)

Indautxutik, 1972.eko apirilaren 30ean.

Egun batzuetan gauzak halaxe gertatzen ditun, Kristina. Krisizko eta ahuleria\* moralezko egun luze askoren ondoren, ustegabeko une batetan argia azaltzen dun zoragarriro.

Joan den astean bertan gertatu zunan, Bilboko Unibersitatean. Nik ez ninan ezagutzen. Mutil gazte bat zunan, beste grado batetako. Eskolarte batez hizketan geundelarik, bera etorri zitzaigun, ene lagun baten adiskidea baitzen. Halako batean, bertan zeuden estudianteatatik batek, haren aspaldiko ezaguna nonbait, honela esan zion erdaraz:

«Zer, aurten ere poesi sariak irabazten ari haiz?». Hark, ordea, seriooki, erantzura hau eman zion: «Ez. Hori lehen zuan. Honez gero, aspertu nauk latin itsasora agertzeaz. Hemendik aurrera euskaraz idazteko asmo finkoa\* diadukaat». Besteak, zeharo harriturik: «Baina hik ez dakik euskaraz!». «Ez niekian. Baina udan ikastaro intentsibo batzuk egin ditiat, eta orain, guztiz ondo ez bada ere, zerbait egiten hasi nauk. Geroago eta hobeki, noski».

Bistan ziegonan ez zitzaiola larregi gustatu beste mutilari beronen erantzura, behin baino gehiagotan «euskaraz idaztea tontakeria bat zela» esan baitzion, bai eta «oso guttik ulertuko haute» ere.

Neronek, mutil euskaldun berri hura\* nor zen jakin guraz,\* neure adiskide Karlosi galde egin nionean, beronek hura erdal poesian behin baino gehiagotan saritua izana zela kontatu zieutanan, eta Madrileko errebista batzuetan publikatuak ere ba zituela.

Atzo, hain zuzen ere, lagun horren poesia batzuk ikusteko okasioa ukan\* ninan. Ez din oraindik hizkuntza behar bezala menperatzen; bistan diagon. Baina, urte bete eskas batean egin duena ikusirik, ez dinat dudarik egiten, egunen batean euskal poeta bikain bat izanen zaikula. Izena Jon din. Gogoan har ezan izen hau. Bertso batzuk\* jartzen dauzkinat, hark eginak, Irlandari buruz.

Egun\* da San Patrizio,  
Bihar azken judizio;  
Egun honetan berdin dirade  
Bertutea ta bizio.  
Anaia O'Casey maitea,  
Zihoakigun urtea.  
Pena honekin bihotz erdia  
Oinazez daukat betea.  
Gorrotoz erdi bestea,  
Piztua berriz hestea.  
Irlandan zehar zaldun bi doaz:  
Gosea eta pestea.  
Neguko garitza errea,  
Erdian gure hasarrea,  
O'in arte zutik egon delako  
Okerbidezko dorrea.  
Laster jausiko\* da habea,  
Hilko du bere jabea.  
Herri guztiok apur dezagun  
Mundu honetako katea.

Zer deritzen? Oraintsuko euskaldun berri batek eginak izateko, harrigarriak ditun; are\* gehiago, Bizkaiko poesia zaharraren kutsua eman diela kontuan hartuz gero, nik uste.

Bistan diagon, aspalditxoan Euskal Herrian kulturaren balantzan, beste zenbait\* gauzatan bezala, dinamika euskararen alde iragana\* dagoela, egun pasatu batean Unamuno eta beste halakoen kausaz kultur pisua erdararen alde egon zen bezalaxe.

Agian,\* oraingoz ez duken aski,\* euskal kultura hasi berri honek eman duena; baina, duda gabe, askoz ere gutiago dun, bertoko erdal kultura ematen ari dena. Mitxelenak, honetaz, arrazoi osoa zinan Bilboko I. Antropologi Astean, euskal kultura, zerbait egin eta osotu gabe, egiteko eta oraindik loratzeko zerbait zela esan zuenean. Lehen loreak azaltzen hasi ditun. Agian, udaberri miragarri bat etorriko ziaion gure Herriari oraindio. Hala bedi.

XABIER

## NOKETAZKO ADITZ FORMAK

diagon, <b>dago</b>	ziegonan, <b>zegoen</b> , egoen
din, <b>du</b>	zieutanan, <b>zeutan</b> , eustan, zidan
dinat, <b>dut</b>	zinan, <b>zuen</b> , eban
ditun, <b>dira</b>	zionan, <b>zion</b> , eutson
duken, <b>dateke</b>	zitzaigun, <b>zitzaikun</b> , jakun,
dun, <b>da</b>	zitzaigun
ninan, <b>nuen</b> , neban	zunan, <b>zen</b> , zan
ziaion, <b>zaio</b> , jako	

## TOKETAZKO ADITZ FORMAK

diadukaat, <b>dadukat</b> , daukat	niekian, <b>niekien</b>
ditiak, <b>ditut</b>	zuan, <b>zen</b> , zan
nauk, <b>naiz</b>	

## OSTERANTZEKO ADITZ FORMAK

dauzkinat, <b>daunadaz</b> , dizkinat	zaiku, <b>jaku</b> , zaigu
dezagun, <b>daigun</b>	zeuden, <b>egozen</b>
die, <b>dautse</b> , diote	zihoakigun, <b>joaten zitzaikun</b> , joa-
ezan, <b>ein</b>	ten jakun
geunden, <b>gengozen</b>	zion, <b>eutson</b>
haute, <b>habe</b>	zitzaion, <b>jakon</b>
nion, <b>neutson</b>	

## Futbolariak ikastolaren alde

Apirilaren 15ean, Bilboko «Athletic» eta Donostiako «Real Sociedad»eko futbolariak partidu bat jokatu eben Bilboko Santutxu haurzueneko ikastolaren alderako. 1.500 pertsona (umeak kontuan harturik) izan ziren ikusle, eta 200.000 pezeta inguru jaso ditu Santutxuko ikastolak. 5 eta 1 nagusitu jakezen Bilbotarrak Donostiarrei; baina jokalaria guztiek hainbat puntu irabazi zituen egintza honenkin. Zorionak!

## A. Ibarrolaren hitzaldia, debekatua

Asteazken\* guztietan egiten denari jarraituz, apirilaren 19an A. Ibarrolaren hitzaldi bat antolatu zen Bilboko Landatxuetan. Hitzaldi hau\* etxeakoandrentzat izaten dira gehienbat, dekorazioa eta holako gaiak erabiliz. Antolatzaileek ez dute orain arte eragozpenik izan; baina, oraingoa, zain zegoen jendetzari, hitzaldia debekatua izan zela esan behar.

# Euskera teknikoa dela eta

Noizean behin, deskantsuren bat behar izaten dugu geure bidean, gero aurrerantz jarraiki ahal izateko. Bate-tik, egin dugunaren perspektiba jartzen dugu begien aurrean; eta bestetik, emandako pausoen gorabeherak aztertutik, gerorako plana prestatzen dugu.

Euskara teknikoaren arloan ere, berdin agrtzen zaiku behar hau. Euskararen beharra sentitzen dugunok, euskararen balioaz arduratzen\* gara, eta euskara erabilgarri bihurtu nahi dugu. Eta hau jakintzaren arlo guztietan lortu gura\* dugu.

Orain artean pauso batzuk emanak ditugu, eta, pauso hauen esannahia aztertuz gero, aurreranzko plana antolatatu behar dugu.

Lehenik, nortzuk dira euskara teknikoaren problema konpontzen saiatu behar dutenak? Bistan da, ez dela nahikoa euskara menperatzea, gai tekniko eta zientifikoak ere menperatu behar baitira. Beraz, dei bat zabaldu behar dugu geure Eskola eta Unibertsitateetan, euskara teknikoaren alde mugimendu bat osa dadin. Eskatu egin behar diegu geure unibertsitariei, Herriari ZOR dioten mesedea.

Bigarenik, zein izanen litzateke bidea? Nik neuk ez dakit zein izanen litzatekeen hoberena; baina, ezer hoberik agertzen ez den bitartean, jadanik\* askok praktikan jarri duena proposatuko nuke.

Nork bere arloan, edo berak ondoenik erabiltzen dituen gaietan, euskaraz presta ditzake bere lantxoak (apunteak eta abar). Jokamolde honek bere alderdi on eta xarrak ditu. Xarrak, zeren\*, gure Herria oraino gordinegi egonik goimailako ikastetak euskaraz bereganatzeko, gutti batzuek baino ez bailituzkete lan hau\* irakurriko. Eta alderdi onak ere bai, zeren, era honetan, erraztasun haundia lortuko baikenuke euskara erabiltzen. Kontuan har, ez dugula geurez trebetasun hau, baizik eta geure egintzaz lortu behar dugula.

Honela, lehenik euskara teknikoa erabiltzen saiatu behar dugu, eta hau entrenamendu baten antzekoa izango litzateke. Hau da oraingoz medio bezala egin behar duguna, nahiz eta geroagorako helburua izan.

Hala ere, urrats\* hau emanik, hor geratuko bagina, urrats alfer, urrats antzua\* izanen litzateke. Esan dugunaren arauera,\* pauso hori gure euskal kulturaren hutsunea betetzeko baino ez da; eta gero pouso horrek eman-kor izan behar du. Kultura Herri baten agerpena da, beraz Herriak sortua. Eta Historiak (hainbat kausa direla eta) eginbide\* batetan jarri gaitu: geure Herriaren kulturaren berpiztaile eta sortzaile izan behar dugula, alegia.\*

Goazen aurrerantz. Euskara teknikoa egiterakoan, ezin dezakegu orga\* idien aurrean jar, hau da, ezin dezakegu etxea teilatutik has, oinarri eta zimentarrietatik baizik. Euskara teknikoaren saila, basik landu gabea, oso zabala da eta horregatik astiro joan behar dugu, behar diren pausoak emanez.

Nondik has? Goi mailako lanak utzi gabe, behe mailako liburuak prestatu behar ditugu. Haurrentzat liburutegi aberats bat zertu behar dugu. Liburu hauk gertatzean, hiztegi teknikoa sortuz joanen da, eta hiztegi hori hobetu egingen da eguneroko praktikaz.

Horregatik, dei bat zabaldu behar dugu geure ikasle eta irakasleen artean, denen artean planifikazio hau aurrerantz eramateko. Asmo onik ez da falta. Orain, egingtzak erakutsiko dauku xede\* hauen egitasuna.

J. R. ETXEBARRIA

dauku, **dauku**, digu  
dezakegu, **daiegu**  
diegu, **dautsegu**, diotegu

diote, **dautsoe**  
ditzake, **daieze**  
zaiku, **jaku**, zaigu

## Euskal jaialdia Hernaniko ikastolaren alde

Euskal jaialdi bat ospatu berri da Hernaniko ikastolaren alde, Donostiako Aurrezki Kutxaren babespean eta «Urumea» elkartearen ardurapean. Lopategi eta Azpillaga bertsolariek, Lurdes Iriondo eta Benito Lertxundi kantariak ihardun izan eben, Jose Maria Aranalde apaizaren gidaritzapean.



**Emakume, gizonezko eta umeen jantziak**

**Oihal, izare eta etxean behar diren  
gainerakoak**

**Bai emakume eta bai gizonezkoentzako  
jantzi aukeratuenak, azken  
modara eginak**

**HURI ZAHARRA**

**“Casco Viejo”**

**BILBO**

# Turkiako azken gertaerak

Mediterraneoko urek laztantzen dituzten lurraldeak, eguzkialdean dute muga, Europa amaitu eta Asia hasten den tokian. Historiaz kargaturiko lurrak, zibilizazio indartsuen sorburu.

Han dago Turkia (767.000 km<sup>2</sup>. eta 32 milioi bizilagun), zatiño bat Europan eta beste guztia Asian. Otomano inperioren azken adierazpen. Lehengo harrotasun eta botorea, gaur Istanbulen museoetan dago gordetik. Kanean ez da horrelakorik nabaritzen,\* pobrezia eta urritasuna baizik.

1971.eko martxoaren 11n, militarrek Nihat Erim jartzen dute Gobernuaren buru. Ordurako, ezkertar komandoak lanean ari ziren, batez ere amerikanoen baseetako militarren kontra.

Gerrilleroak, gazte unibertsitariak dira gehienbat; eta «Dev Genc» izeneko taldea osatzen dute, «Turkiar Gazteria Iraultzailea» delakotik sortua, azken hau desegin zenean.

1971.eko maiatzaren 17an, Ephraim Elrom Israelgo kontsula bahitzen\* dute Istanbulen. Hau askatzeko, bahitzaileek gartzelatuen libertatea jartzen dute kondiziotzat. Gobernuaren erantzuna hau da: «Ez dugu inolá ere amore emango; eta erakutsi egingo dugu munduaren aurrean, Turkia benetako Estatu bat dela».

Eta erakutsia laster etorri zen. Biharamunean, 540 pertsona arrestatuak dira; hurrengo egunean, milatik gora. Istanbulen Gobernuak, 15 ordutan, trafiko osoa geldituz erazten du, bai itsasoz, bai trenaz, bai kalez eta bidez. «Turkiar Estatuak ez du bandidoekin tratatzen» dio Gobernuak berriro. Eta maiatzaren 23an, Israelgo kontsula hilik agertzen da.

Urriaren 9an, 18 gazte iraultzaile epaituak dira. Akuzazioa, martxoaren 4ean lau militar amerikano bahitu zituztela. Lau egun bahiturik egon ondoren, libertatea lortu zuten; baina militar epailariak hiltzera kondenatzen dituzte 18 gazteok.

Eta, kanean, jendeak zera galdetzen du: «Zer egingo dute orain «Dev Genc» taldekoek, 18 gazteak heriotzetik libratzeko?»

Ismet Inonu Turkiako presidente ohiak\* zigorraren gogortasunagatik protestatzen du, eta ez da bakarrik protestatzen. Luzapenak datoz, azterketa berriak; eta, azkenik, aurtengo martxoaren 17an, indulto 15 gazterentzat. Beste hirurek (Deniz Gezenis, Yusuf Aslan eta Huseyin Inan) heriotze kondenaren konfirmazioa dute, eta orduan dator «Dev Genc»koen erantzuna: martxoaren 26an, komando batek bi ingeles eta kanadiano bat bahitzen ditu, Unye-ko radar estazio militarrean lanean ari zirenak. Hauk\* askatzeko, baldintza bat jartzen dute: heriotzera kondenatuen libratzea.

Baina Gobernuak «ez du bandidoekin tratatu nahi», eta 10.000 polizgizon hasten dira haien bila. Martxoaren 30ean, Kizildere herrian aurkitzen dituzte, alkatearen etxean. Polizgizonek inguratzen dituzte, erasotzen\* diete eta etxe barruan zeudenetik 13 pertsona hiltzen dira (hiru bahituak eta hamar iraultzaile).

Nola hil diren? Gauzak nahasi daude. Agentzia ofizialak lehen mementoan esan zuenez, bahitzaileek berek zartarazi\* zuketena\* etxea, nahiago baitzuketena beren buruak hil, poliziaren eskuetan jausi\* baino. Dirudenez, konturatu egin zen gero Gobernuak, berri horrekin herriaren aurrean iraultzaileak heroe batzuk bezala agertuko zirela; eta aldatu egin zuen lehen esana. Bigarren informazioaren arauera\*, iraultzaileek hil zituzketen bahituak, eta gero haiek heriotzea aurkitu zuketena polizgizonekin izandako tirokatzean. Dena dela, inguruan zeuden kazetariek, zarata handi bat entzun zela esan dute.

Hauxe da orain arte gertatua. Eta gero zer? Etorriko diren egunek emango daukute erantzuna.

XABIER GEREÑO

daude, dagoz  
daukute, daukue, digute

diete, dautsee  
zeuden, egozen

## Euskararen etorkizunak Euskal Herrian

Irakurri berri dut Xabier Gereñoren «Irlandaren alderdi ezezagun bat» artikulua; eta, «euskal pedagogoen eta irakasleek dutela hitza» dioenez, hona hemen eritzi labur labur bat.

Lehenik, argia dela uste dut, erantzun gisa\* Ibon Sarasolak bere «Euskal Literaturaren Historia» liburuaren 95. orrialdean dioena:

«Dena dela, ez da ahaztu behar problema guzti hauen sustrai nagusiak literaturatik at\* daudela. Gure existentzia taxutzen duen produkzio molde kapitalistak, gauzetatik benefizio ahalik eta haundiena lortzea\* du helburutzat.\* Ikuspegi alienatzaile eta utilitarista honen pean, euskararen eta euskal kulturaren etorkizuna arrisku etengabean aurkitzen da. Egoera gaizto hau, funtsean,\* produkzio molde bestelako batek balore hierarkia bidezkoago bat ezarri ez dueino,\* ez da aldatuko. Euskal literaturak estrategia orokar\* baten esijentzietara makurtu behar du halabeharrez.»

Euskararen problema (hitzez ez baina egitez egiten dugun) folkloreak mailatik sozial mailara (beraz, politika mailara) jasotzen ez dugun bitartean, euskararengana nigarra ez ote da alferrikakoa? Zergatik gure enpresa gizon euskaldunek ez dute administrazioa euskaraz eramatea? Zergatik ez dute eramango?

Bitartean, nola fruturik eman, ikastoletan eta alfabetatze ikastaldietan sartzeko diren orduak? Euskal pedagogoen eta irakasleek bakarrik ez dute hitza; Euskal Herriaren etorkizun berriaren alde dihardugun guztiok dugu hitza. Euskaraz Euskal Herrian egiten da, eta euskara Euskal Herriaren parte batek erabiltzen du. Euskararen problema eta Euskal Herriarena, etxe berekoak dira.

J. J.

## Nafarroako jotak diskotan

Julio Sánchez eta Jesus Ramírez jaunek Nafarroako jotak disko batean grabatu berri ditue Iruinean. Jota honen hitzak, berriak dira.



## Euskara batua, lapurtar klasikoaren alde (4)

Azken puntuan Larresorok gipuzkera Nafarroan hitz egiten dela dio. Dударik gabe, herri batzuetan; baina Gipuzkoan nafarreraz eta bizkaieraz ere hitz egiten da, eremu\* are\* handiagoan gainera. Eta Nafarroan hitz egiten diren euskalkiak,\* euskal dialektogoen eritziz, lapurteraren subdialektoak dira. Honela esaten dute Bonaparte printzeak eta bestek. Hauen aburuz,\* Baztango dialektoa lapurtera da; beraz, Nafarroan lapurtera gipuzkera baino hobeki ulertzen da.

Baina, Larresororen argumentu honen aurka, kontra-argumentu handiena Larresorok berak ematen dauku bere «Eibartarrari» egindako gutunean:\* «Guganainoko Euskal Herria gauza bat izan da; eta gugandikakoa, nahitaez, beste gauza bat izango da: etendura\* ondokoa. Negar egin daiteke, ala farre; baina hori horrela da. Etendura hori ezin da ezabatu.\* Zuk ongi dazkizun arrazoinengatik horretara heldu gara, eta ez-ikusia egiterik ez dago. Gauza bat adierazten du honek: jatorrizko euskalkien urteak ahitu\* direla... Euskalkien amaia begien aurrean dugu... Baina ikastola berrietan ikusten ditugu (haurrak) alai, Otsagabian eta Bilbon, Donapaleu eta Gastehizen, Arrangoitzen eta Tudelan, gero eta euskara batuagoan ari...».

Beraz, zergatik etortzen zaiku Larresoro jauna, Iparaldean ikastolak ez dauden lekuetan euskara orain ahitzen dela aipatzera? Gauza berdina gertatua da Gipuzkoan eta Bizkaian; bai eta oraingo kondizio hauetan ere gertatzen da. Etorkizuneko euskara, beste hizkuntzetan bezala, ikastoletan ikasten den hizkuntza izenen bada, ez ote da izanen Euskal Herrian ere irakastegietan irakats dezakegun hizkuntza? Eta literatur hizkuntza batuak ez ote dira beti hizkuntza eskribatuak? Eta hizkuntza eskribatuak ez direa\* beti sortzen literatur tradizio baten bidez? Eta euskararen dugun literatur tradizio hau ez da ala\* lapurtera klasikoarena?

Beraz, gauzak hitz bitan laburtzen baditugu, Larresoro jaunari esan diezakeogu, eskolaren bidez bizirik iraun eraz dezakegun euskara, lapurtera klasikoa izan daitekeela.

a) Lapurtera klasikoa, aditzaren batasunean gipuzkera baino hobea da.

b) Euskara klasikoak erabiltzen zituen forma batzuk, gaurko lapurteraren ikuspuntutik, batzuetan arkaismoak dira; baina arkaismo hauk,\* oraingo bizkaieraren eta gipuzkeraren barnean bizirik dauden formak dira. Beraz, arkaismo hauk lapurtera klasikoaren alde mintzo\* dira, eta ez kontra.

**Fonetika ikuspuntutik:** Ahozkerak\* batua beti ikastoletan irakasten da herri guztietan; beraz, euskararen es-  
truktura fonetiko orijinalak ikastea, euskararen bizia iraun eraztea da. Ahozkerak batua beti ikastekoa izanen da, eta haurrek beti ikas ditzakete ahozkatze estruktura guztiak.

**Kultur hitzen ikuspuntutik:** Kultur hitzak, hizkuntza unibertsalean dadukaten formaz erabili behar dira, hemen baitago erraztasuna. Gaztelaniaz edo italieraz kultur hitzek daduzkaten forma nazionalak ez dira erraztasuna, difikultatea baizik, kulturaren alorrean\* ari izan behar dutenentzat.

H. GARAIGORTA

dadukate, daukate, **dauke**  
dauzkate, dauzkate, **daukez**  
daude, **dagoz**  
dauku, **dausku**, digu

dazkizu, dakizkizu, **dakizuz**  
diezakeogu, **deiskiogu** (deiskeo-  
gu), dezaiokegu  
ditzakete, **daikenez**  
zaiku, **jaku**, zaigu

### Amarako ikastolaren alde

Apirilaren 15ean, Amarako ikastolaren alde jaialdi bat ospatu izan dau, Donostian, hiri haretako «Donosti Berrri» erakundeak.\* «Oskarbi» taldeak, «Erlak» bikoteak, Patxi Maritxelar kantariak, eta Azpillaga eta Lopategi bertolariek ihardun izan eben.

### Aralarreko Aingeruaren irudia Iruinean

Ohitura dan bezala, Aralarreko Aingeruaren irudia Iruinera eroan izan dabe, joan dan apirilaren 12an: lehenik Diputaziora, gero «Audiencia Territorial» dalakora, hemendik «Delegación de Hacienda»ra. Eta, holako bisitaldi batzuk egin ondoren, berriz ere Aralarreko mendira eramán eben.

### Linazasoro jaunaren mintzaldia Elgoibarren

Linazasoro jauna mintzatu berri da Elgoibarren «literatura vasca sobre el humor» gaiari buruz, «Centro Uri-bitarte» etxean. Noren lepotik barre eragin ote eban?

### Jose Maria Muñoa jaunaren berbaldia Pasaian

Jose Maria Muñoa jaunak hitzaldi bat eman eban «mensaje fundamental del Nuevo Testamento y su realización» gaiari buruz, apirilaren 11n, Gipuzkoako Pasaian.

### Benito Lertxundi Oñatiko ikastolaren alde

Benito Lertxundi kantari ospetsuak ihardunaldi bat eskaini eban Oñatiko ikastolaren alde, iragan\* apirilaren 8an, «Instituto Nacional» ikastetxean. Benito Lertxundi, jakina dan legez,\* kantari profesional bihurtu zan, orain dala urte bete inguru.

### Mugaldeko langileak gero eta txarrago

Espainiako partean bizi baina egunero Frantzialdera lan egitera joaten diren beharginei,\* «mugaldeko langileak» deitzen jake. Aspaldion, Bidasoaz bastaldean lan gutxi dagoela eta, gauzak txarto doakioez, eta asken as-  
teotan hainbat gelditu izan dira lanlekurik gabe.

### «Euskal Kultur Mintegi»aren oharra

Jaun euskaltzain\* batzuei «Euskal Kultur Mintegi»aren izenez inkesta\* bat egin omen zaielarik, eta horri buruz hoietariko zenbaitek\* argitasunak eskaturik, Euskal Kultur Mintegiko batzorde zuzendariak argi eta garbi jakin erazten du, ez duela batere zerikusirik haiekin, eta, beraz, ez direla erakunde\* honek antolatutako zerba-it bezala hartu behar.

# Feltrinelli-ren herioa

Oraindik denbora gutti dela, ajentziek beste berri triste bat eman zeukuten: Feltrinelliaren gorpua,\* dinamitzako karga batek leher egin ziolarik, (fisikaren hastapenen\* arauera,\* ez oso modu logiko batez berau) guztiz zatikaturik aurkitua izan dela, alegia.\* Kazetako artikulu-buruak era honetakoak ziren, egun hoietan, gutti gorabehera: «Milango inguruetan argindarraren poste bat leher eraztera zihoala, kargaren birrintzearekin bere burua hil du...».

Nor zen S. Feltrinelli?

Feltrinelli, Italiako editore progresisten artean progresistena baino zerbait ilunago eta positiboagoa zen. Beharbada militanteak ez bestek konpreni dezakeen norbait, beharbada egiazko Erreboluzioaren gristasunean, betiko ilun ezezagunen artean diharduen norbait. Egungo\* Italiako editatze kojuntura ezaguturik, Feltrinelli Italian, Frantzia Maspero bezala, bere bizitzaren luzera osoan dudatzeko nortasuna edo ahalmena ukan\* zuen norbait zela esan dezakegu. Bere «hondo» bibliografikoan atera zituen liburuek, beren desberdintasunean, intelektual erreboluziogile baten nortasuna azaltzen daukute: Egiaren edo egia osoaren jabe sentitzen ez delarik, bere indarren neurrian eta jabe den harma guztiekin, mundu libreago baten alde burukatzen zuen norbaiten ideia, alegia.

Fidel Castrok «Che» Guevararen egunkaria —CIAk eta Boliviako gobernuak bere artxiobotan segurtzat ematen zutena— italiaraz argitara zezan, Feltrinelliri eman zionean (eta hau, Cubako gobernu erreboluziogileak indar guztiez Hego Amerikako liberazio mugimendu guztien laguntzaile zelarik gertatu zela kontuan harturik), konfidantza hura\* aurretiagoko ekintza iraultzaile garbi baten oinarrizko zela pantsatu beharrez gaude, logikoak baldin bagara behintzat.

Fidelek Feltrinelliri Cubako Herriak gehien maite zuen dokumentu haren konfidantza egitea, haren lan «legala» alde batera utzita ere, guk geure konfidantza botoa emateko aski\* zatekeelakoan gaude.

Beti pentsatu dut, Feltrinelli gure garaiko europar tipoa izan zela: bere izatez kontradizio bat, bere mementoan\* eta bere leku konkretuan bizitzen zekiena eta, horregatik hain zuzen ere, errealtatea bera bezala, kontradizio konstante batetan bizi izan zena.

Kontradizio horrek ez zizkion, ordea, edozein zalantzarako edo Boliviako zelai goietako nekazariarentzat bere ideiak eta etxeko atak irekiak edukitzea galerazten. Zeren,\* Cuban entrenamenduak egin ondoren, CIAk zabalduko sare hertsitik\* bere burua libratzeko, ferryz, autoz eta aeroplanoz munduko punta batetik bestera hamar bide komertzial ibiliz, egun konkretu batetan, ordu konkretu batetan bere herriko erreboluzioaren laguntzaile bat behar zuenak, halakoak Feltrinellirengan zuen beti, La Paz, Caracas edo Medellin-era zeharka eta ezkatatuz itzultzeko edo atseden segur bat edukitzeko laguntza.

Beti pentsatu dut, bai, Feltrinellirengan; askatasunaren alde diren burruka guztien joan-etorri logikoen arauera,\* zalantza logikoak sentitu bazituen ere, bere eskema «garbi», «orokor», «erreboluziogile» guztien gainetik,

ekintzan aritzen zenari errespetoa ziolako...; beharbada Parisen metroko xartela ateratzeko gauza ez izanik ere, metraileta eskuetan, burrukaren mailarik gorena defendatzen dutenen zerrendan sartzeko kapaz zen gizonari, bere konfidantza botoa ematen jakin zuelako.

Nora eskriba\* diezakeagu, Feltrinelli? Beharbada Milango peoi baten etxera, Ataungo nekazari batenera, edo, beharbada, Mozambiquerako FROLIMoko baten amaren etxera?

Ez da martiri bat egiteko mementoa, ez eta heroe bat egitekoa ere. Bai, ordea, bere printzipio aurrerakoietatik **geldi!** hitza betiko desterratu zuelako, bere efikazia (efikazia dudatua) bide delarik, erreakzioaren indarrek hiltzera kondenatu dutela pentsatzeko ordua. Zeren,\* arazoa hauxe baita, Feltrinellik, egiten zuelako edo egin nahi zuelako, ez duela gehiago zalantzarik edukiko.

AINHOA

daukute, **dauskue**, digute  
dezake, **daike**  
dezakegu, **daikegu**  
diezakeagu (hiri), **deiskiagu**,  
dezaiakegu

gaude, **gagoz**  
zeukuten, **euskuen**, ziguten  
zezan, **eian**  
zihoan, **joian**, zoan  
zion, **eutson**  
zizkion, **eutsozan** ziozkan

## Arkitekto talde batek urbanismoaz mintzatzeko baimenik ez

Bilboko arkitekto talde bat mintzaldi bat ematekotan zan Bizkaiko Ermua herrian; baina ezin izan eben horrelakorik egin, ez baiteben horretarako behar dan baimeunik lortu izan. Berbaldia hirigintzari\* buruzkoa zan.

## Donibane Lohitzunek zer du beharrago?

Donibane\* Lohitzunek zer du beharrago: udaportu edo plazerportu bat ala arraintzako itsasportu berri eta haundi bat? Galde horri, hona nola jendeak ihardetsi\* dion: % 97,76k arraintzako portu berria, % 2,02k udaportua.

Donibane Lohitzuneko jende gehienak, ez esateko guztiak, arraintzako itsasportu berri bat nahi du. Baina 70 bat udabarku kokatuko\* dituen plazerportu berri bat egiten ari dira!



**ELAIS ALAI**  
**YURRE**

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6. tatik 11. ra  
Astegunez: 7. tatik 11. ra.

KAFETEGI **AMALUR** RESTAURANTA

## S O R G I N A K

Enekok, «Ayala» zinetokitik etortzerakoan, «Akelarre» izeneko kafetegi bat ikusi dau, atean sorgin beltz batzuk dituana. Etxera etorrira, amari irudi animatuen pelikula kontatu ondoren, osaba Martin gaixoari **akelarre** zer dan itaundu\* dautso.

Osaba Martin, beretzat Job Santuak gurako\* eban pazientzia batez, —norbera irakurtzen ari danean, inork enbarazu egitera etortzea baino gauza hasarregarriagorik ez dago eta— esku artean eukan liburua utzi eta arnasa sakon bat egin ondoren, erantzutera gertu\* dago.

—Akelarre, sorginek ilargi betea egoten zanean mendietan egiten eben batzarre bat zan, bertan deabrua adoratzeko asmoz.

—**Eta bertan deabrua egoten zan ala?** —Enekok susmo txarrez.

—Ez horixe! Baina sorginek aker bat eroaten\* ei\* eben hara, eta, adarrak eta eukazanez, haxe\* deabrua bailitzan adoratzeko eben. Hortik etorri ei jake batzarre horreei **akelarre** izena, hau da, akerraren larrea edo zelaia. Euskaratiko izen hau hizkuntza askotara pasatu da gainera, Euskal Herriko sorginen batzarre honek Europa osoan guztiz famatuak izan zirelako.

—**Non egiten zituen batzarreok?**

—Zugarramurdir, Nafarroa eta Lapurdi artean dagoen zelai batean. Bertara joateko, sorginek halako ungentu\* batez igortzen eben gorputza, eta, berba magiko batzuk esanez, isats\* edo inarren\* gainean jarrita hegaz joaten ei ziren airetik, bai eta animalien lepo edo bizkarrean ere.

—**Eta zeintzuk hitz magiko ziren horreek, osaba?**

—Honeexek ziren, oker ez banago: «**Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik**». Baina kontuz ibili behar da magia, ze,\* esaten danez, ba ei zan behin morroi bat, sorginen berba horreek entzun ondoren, berak oker esan zituana, honetara: «**sasi guztien azpitik eta hodei guztien gainetik**», eta, dirudianez, gorputzaren zati batzuk gora eta beste batzuk behera joan jakozen gaixoari, holan zeharo zati zati eginda geraturik.\*

—**Eta non bizi ziren sorgin horreek, ba?**

—Sorginak ez ziren aparte bizi. Herri guztietan ei ziren, eta ez emakumezkoen artean bakarrik, bai eta gizonzkoetan ere. Batzuek dinoenez, gainera, apaiz gaizto- ren bat ere haraxe joaten ei zan akelarreetara, bertan dantzan eta edaten ibiltzeko. Mozkortu ondoren, sorginek gero ikusgarri asko ikusten ebela esaten eben. Egia esateko baina, sorginak ez ziren hain pertsona gaiztoak; baina jendeari, hareek egiaz egiten ebena baino gehiago sinestea gustatzen jakon, eta horregatik batzuetan sutan erretzera kondenatzen zituen sorginak.

—**Kondenatzaileak bai zirela gaiztoak, osaba, eta ez sorginak. Pertsonak gezurrez hiltzera kondenatzea ere!**

—Arrazoi osoa daukazu, Eneko, bai. Eta orain, zergatik ez zoaz «Gauza Harrigarriak» irakurtzera, eta niri Joannes Etxeberriren «Lan Hautatuak» bakean irakurtzen uzten, e?

—Bai, osaba, bai. Ez zaitetz hasarratu, egon trankil, ba noa eta.

### TRAUKO

dautso, dio  
eban, zuen  
eben, zuten,  
eukan, zedukan, zeukan

eukazan, zeduzkan, zeuzkan  
jake, zaie, zaiote  
jakon, zitzaion  
jakozen, zitzaizkion

## Elizarik behar ote dugu?

Gizarte honetako ereduak\* eta eraikidurak\* bestelakatu\* behar direla eta, kristau ekintzaileak atrebitu dira klaseen burrukan sartzerat. Fedeak bultzaturik eta talde sozialen azterketa funtsezko\* baten ondotik, hautua\* egiten dute zapalduen alde: izan ere, fedeak beti ekartzen gaitu gizarte gunerat,\* asko gisatarat\* alienatuak direnen gunerat. Horrela, han eta hemen, kristau taldeak sortu eta ugaritzer\* dira. Ohartu bide\* dira laster, Eliza ofizialak jartzen dizkien traba eta eragozpenez: erreformismo aldetik jokatzeko duela, iraultza\* eragin behar litzatekeelarik. Eta galdera hau\* sortu zaizkie: Elizarik behar ote da? Baietzean, nolako Eliza?

Galdera hauen inguruan eta funtsetik, Boquen-eko batasunak\* biltzarre bat apailatzen\* du Rennes-en (Frantzia), apirilaren 29tik maiatzaren 1erarte. Deituak dira oinarriko komunitate kritikoetan eta talde informaletan barne diren kristau ekintzaileak, gizarte honetan ebanjelio biziera berri batez axolatuak\* diren guztiak. Biltzarrearen xedea\* da: esperientzia diferenteak ezagutaraztea eta konfrontatzea; taldeka, elkar hizketaz, puntu batzuk\* aztertzea, hala nola:

—Nolako fedea aitor dezakegu gizonen artean?

—Nolako eretan fedea gaur ager dezakegu?

—Zertarat fedea behartzen gaitu, batez ere politika zeretan?

—Nolako kristau elkarretaratzeak asma ditzakegu, beharordu berriei ihardukitzeko?\*

Oso galdera premiatsuak, alferkeriaz edo ezaxolkeriaz\* bazterrerat ezin utz ditzakegunak. Euskal Herriko kristau ekintzaileok ezagutzen dugu, guk ere, galdera hauen ikertzeko\* eta argitzeko premia, euskal gizarte hobeago eta zuzenago bat nahi baldin badugu bederen.\*

M. ERDOZAINCY-ETCHART

dezakegu, daiegu  
ditzakegu, daieguz

dizkie, dautsez, diozkate  
zaizkie, jakez, zaizkote

### AGUR, asteroko bihurtu da

Bilboko AGUR, asteroko bihurtu berri da. Etapa berri honi hasiera emateko, bazkari bat egin eben Gipuzkoako Elgetan, martxoaren 25ean. Aldizkari honetako idazlerik behinenetarikoa\* dan Martin Olazar apaizak honetara laburtzen dau egun haretako joan-etorria:

«Geuk uste genduan baiño geiago alkartu giñan: eun eta ogei ta amabi. Jan aurrean, berbaldi labur eta mamintsu baten, alkartzearen garrantzia azaldu euskuen. Gero, bazkaria, ez jatun atsegin-zaleak egiten daben la-koa, gosea kentzeko bestekoa eta gaiñera pozaren ezau- garri diran akeita ta abar. Batzarkideen urteai begira jarten ba'giñan, guztietarikoak egozan. Izkuntzeari begiratu ez- kero, alde guztietan euskerea entzuten zan, geiena gi- puzkoerea ta bizkaiera. Izkuntza-aldeetiko eretxiak kon- turatu ezkeru, guztiak, uste dot, erri-bide-zaleak zirala».

Dudarik ez dago: AGURen «Bere Betiko Benetakoak» langile ari dira.

# Erljioa aitzaki

Zalantzarik\* gabe. Bai eta ez-ik gabe. Bai baina-rik gabe. Aho batez baieztatu\* daiteke. Eta nik, daukakedan\* indar eta ahalmenez, baietz diot: Gaur egun ere, gaur egun oraino, erljioa aitzaki dugu. Eta zeren aitzaki? Ho-beagoren aitzakirik ez dut ezagutzen; ez da ohi izan. Ilargikeria horixe.

Ortega Gasset espainiarra zen; eta maite zuen bere aberria. Ez zen nonbait (nor harrituko?) berak nahi bezain gozagarri, eta horregatik zioen: «Mingarri zait Espainia hau». Horixe berori esanen dugu, Eliza maite dugunok eta erljioa bizitzarako bizia dela aitortzen dugunok. Aitzaki bezala ez gero, beragan bizi osoa duen indar pozgarri bat bezala baino.

Gorrotoa hain gorrotogarri ez balitz; izanez izenez bezain itsusi ez balitz, gorrotogarri zaizkidala esanen nuke erljioa aitzakitza darabilatenak. Eta ez dira gutti. Beharbada, uste gabeen, ez gara hain bakanak.\*

Noski,\* hau ez da gaurko gaitza. Kristo aurretik ere, erljioa zen nahasketa gehientsuen aitzakia. Eta, Kristoren sinesmena munduan hedatzen\* hasi zenetik geroz, zer esan? Gogortxo ez balitz, pozik esango nuke, eta... zer lasaitasuna! Kristaudentzat erljioa ez da aitzaki; aitzaki dute erljioa bihurtu. Hiru urte edo hogeitamar urte edo ehun urteko gudua egin nahi dute? Aitzaki polita: erljioa salbatu behar dugu. Ezin agertu gudua aitzaki bezala; erljioa dute aitzaki; gudua dute erljioa.

Urrutira joan ote naiz? Ez, noski, ahazturik ditudalako hurbilagoko\* guduak eta haien arrastoa daramaten manifestazio batzuk. Bai, bai. Gaur oraintxe, hor eta hemen, zuri eta hain zuri ez direnen artean; baina oso zuri direnen artean batez ere.

Ez dakit aski argi ote dagoen esan dudana, edo esan nahi nuena. Gogora datorkit ANAITASUNAREN azken alean Luis Haranburu-Altunak Iratzederri zioena: «Apezak ba du orduan zerbait ezin esana?». Zorioneko zu (edo zoritxarreko?), Haranburu jauna, ez baldin baduzu ezer ezin esanik.

## MARKOX AMUNDARAIN

darabilate, **darabile**, darabilte  
daramate, **daroe**

zait, **jat**  
zaizkit, **jataz**  
zioen, **inoan**, esaten zuen

## «Alderdi» aldizkariaren irakatsiak

«Alderdi» aldizkariaren 272. zenbakian, artikulu interresgarri bi agertu dira. Bata «Bangla Desh y Yugoslavia» izenekoa, eta bestea «La descentralización a debate». Lehen artikuluan, marxistek «nazio arazoei» ematen dautseezan soluzioak dilindan jartzen dira, baina era eta itxura onez, anatematizatzen ihardun gabe. Bigarrean, gaurko egoeran ere zerbait egin leitekela uste da, «descentralización» dalakoaren arazo horretan; eta, horretarako, 1917 eta 1931. urteetan gertatuak gogoratzen dira.

# Euskal diskoak: TXAIRO



CIN - 102

Egilea: CINSA - Av. Ejército, 18, 8.º - BILBAO - 14

## LORERIK EDERRENAK

Lorerik ederrenak,  
zelaian sortutakoak,  
ametsik gozoenak  
gaztetan egindakoak,  
muxurik samurrenak,  
maite, zuk emandokoak.

Abesti politenak,  
olerkirik onenak,  
zugaltzaren emaltzik  
eder eta gozoenak,  
eskeintzen diskizut  
ametsik ederrenak.

Zeru urdiñ  
dira zure begiak,  
izarrak bezin  
dizdiragarriak.

Esan zaidazu  
zalantza gabe  
maite nauzula  
pixka bat.

## ARROKERIA

Gaztea naiz ta ulertu ezin det  
zer gertatzen dan munduan,  
burrukan dabilz gizon gehienak  
arrokeriaz gaiñezka.

Nik txikitandik  
beti maitasuna  
entzun izan det eten gabeen,  
bañan bildur naiz  
gezurra ote dan  
ez bai det ikusten kalean.

Maite galtezen  
zahar eta gazteak  
Jaunak agintzen dun bezela,  
mendiko lore,  
zeruko izar,  
Itxasoko arralen antzera.

## ANA

Anal, auxe da lana,  
Zu gabe gozagaltz zalt dana  
jana eta edana,  
kaltegarri ditut, laztana.

Anal, Anal

Usoak joan dira hegoaldera,  
kabi barriren bat han billatzera,  
maitasun galduak aztutzera.

Laiñoak aizetan dabilz,  
bide luzeak egiten;  
bihotz ixillèn malkoak  
ez ditu iñork jakiten.

Anal, Anal

Negarrez urtu naiz dana,

Illunari nago emana.

Atoz, all, neregana:  
atòz, bai, Anal  
Erbiak arin dijoaz  
txakur agiñen igesi;  
nere oiñaze honekin  
ezin ninteke ni bizl.

## ZURI BAKARRIK

Zuri bakarrik  
abestuko dizut bai, nik,  
soiñu politik  
bihotz barrutik.

Kezkati nabil,  
burutik txoraturik,  
hainbesterañño  
maite zaitut nik.

Maitatzen diran  
txori ta arraiak,  
loretan dagozen  
mendi ta hibaiak,  
agertzen dute betiko  
maite egarrria.

Zu barriz,  
ez dakit nolatan  
zabiltzen.

Nahi dezu hitz egin  
doñuren batian?

# Ez gal zeuen odol beroa!

Harri beltzeko teilatu grisak, etxeko ormak\* iluskak, zelai berde, distiratsu eta eder, Pirinioetako tontor elurreztatuen petik. Herritxoetan elizdorre hirukoitzak, eta mende\* askotako historia hilarri biribil goroldiotsuetan.\* Behi gorri begi malenkoniatsu, eta bortuetan\* artalde zuriak. Gizon isil, xapel haundi, baserri bakartietan. Eta iragan\* denboretako gaztelu eta jauregi huntzorritz\* beteriko haien peko ibarretan, edertasun miserablea, kanporabidea, etorkizunik eza, hilobian bizitzea. Holaxe duzu, irakurle, Zuberoa ederra, politta eta xarmagarria, bertako bizilagunen zoritxarrerako.

Bertan ez dago lanik zuberotarrentzat. Urteko hainbat gazte iheska doaz beren gurasoen lurretatik Paris aldera lan bila, bertan deseuskalduntzeko eta sarri askotan bizimodu nigargarrian aritzeko.\* Baserrietan gelditzen direnak, berriz, donado,\* mutil zahar, gelditzen dira, baserrietara neskek ezkontzerik nahi ez dutelako.

Ez, gazteak ez doaz herbestera gogoz, bortxaz baizik. Baina Frantziak ez die industriarik jartzen bertan, eta lekuen edertasunak ez du jatekorik ematen. Batzuei bai, noski,\* ostalariei eta turismotik bizi direnei; baina hauk\* gutienak dira.

Herriak urtero odol galtze izugarri bat jasan\* eta pairatu\* behar du hoiengatik. Bai, zenbait\* apaiz zaharrek eta erromantiko erok\* ez lukete industriarik ekarri nahi. Baina halakoek ez bide\* dute pentsatzen, antza,\* berek Zuberoa garbi eta xoragarri bat ikustearen prezioa Pariseko euskal nesken prostituzioa dela; eta berau entzutea, ba dakigu, ez zaie gustatzen.

Euskara bera ere galduz doa, egia. Gazteria gero eta ezjakinago dago bere hizkuntzan; baina ez dugu uste, horretaz hainbat nigar isuri irudi egiten duen zenbait apaizteriak\* euskarazko elizkizunetan laguntasun handirik eman duenik. Zuberoko herri batzuetan euskarazko mezarik ez dago, baina bai portugesezkoak.

Iparraldeko gazteek, aspaldion isil eta geldi egon arren, alde batera utzi dute gaintetiko apaltasun galgarri hori. Ez, diotena diotela, ez beza\* inork pentsa, ipar euskaldunak horrelakoxeak izan direla betidanik. Orain berrehun urte inguru Joannes Etxeberrik ba zioen «...**zeren\* gazteak, eta bereziki euskaldunak, bere baitharik\* emanak baitira gudura eta gathazkara\***»; orduan gaur beza-lakoak ez zirelako seinalea, hala fedel!

Zergatik azken urteotako gelditasuna? Agian\* apaizkeria\* gerakor\* eta atzerakoi\* baten ondorioz? Ez dugu uste, injustiziaren aurrean kristauaren portaera jatorra eta egokiena gelditasuna denik. Baina, dirudienez, eta honek biziki pozten gaitu, ba dago gutaz gainera Zuberorren horrela uste duenik.

Matalasen garaietan iraultzarako\* deia entzun zen Zuberoan; baina uste genuen, orduko su hura\* iraungia\* eta itzalia zela espaldian, hots,\* Zuberoko eta iparraldeko gazteek bihotza eta odola hoztua zutela. Baina pozik aitortu behar dugu, oker geundela. Matalasek bizirik dirau,\* eta joan den hilabetean halaxe agertu zen Maulen.\*

Haltzak\* ez du bihotzik, baina Zuberoak bai, eta ederra gainera. Zorionak, zuberotarrok! Aurrera, -gazteok! Ibiltzen hasiak zarete, bai eta pauso sendo batzuk eman ere. Segi horrela. Arrazoia duzue protestatzeko. Jarraiki gogor bideari, etorkizuna zuena baita, lagunok. Eta bihoakizue, Bizkaitik esanik, zuen kanta jator hau: «Ez, otoi, gal zeuen odol beroa, bizi dadin gure Zuberoa».

XABIER KINTANA

beza, **bei**  
bihoakizue, **beioakizue**  
die, **dautse**, diote

geunden, **gengozen**  
zaie, **jake**, zaiote  
zioen, **inoan**, esaten zuen

## Gotzon Garate jesuitaren berbaldia Zizurkilen

Gotzon Garate jesuitak, Deustuko Unibertsitatean irakasle danak, hitzaldi bat eman eban «zer dan marxismoa» gaiari buruz, Zizurkilgo Elbarrena hauzoan, joan dan Aste Santuan.

## Xabier Gereño liburu berri bat prestatzen

Xabier Gereko bilbotarra liburu berri bat prestatzen ari da, bide onetik jakin dogunez. Liburu hau euskal ohi-turei buruzkoa ei\* da, eta fotografia eta irudi ugarirekin ei dator.

## «Oskorri» taldea bere kantak grabatzen

«Oskorri» bilbotar kantari taldeak «zinta» dalako horreetan grabatu izan ditu bere kantak. Baina noiz diskoetan?

## Jakin!!

UDAKO IKASTAROAK  
ALFABTATZE KANPAINAK  
Euskaltzaindiaren babespean  
Zelan? Nun? Norentzat?

Deitu: Bilbo Tfo. 21 27 45  
Donostia Tfo. 42 97 79

16. orrialderik

Bukatzeko, hau ere esan beharra dut (geure artean aproposak baikara, gauzak oker hartzen): nire esan hauk\* gorabehera,\* lehen bezala estimatzen dudala Aresti; eta poeta bezala, **Harri eta Herri**-ren hitzaurreetan esanak, diren berean gelditzen direla. Artikulu hau irakurri ondorean, inork besterik uste badu, haritik landa doa.

JUAN SAN MARTIN

dakarzki, **dakarz**, **dakaz**  
daude, **dagoz**  
dezadan, **daidan**  
diote, **dautsee**  
dio, **dautso**  
diot, **dautsat**  
nion, **neutsan**  
zaiku, **jaku**, zaigu

zaio, **jako**  
zait, **jat**  
zeukun, **euskun**, zigun  
zeutan, **eustan**, zidan  
zioen, **inoan**, esaten zuen  
zion, **eutsan**  
zitzaidan, **jatan**  
zitzaizkion, **jakozen**

## Gurutzegrama (6)

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1					■					
2								■		
3					■		■			
4			■						■	
5				■	■				■	
6		■		■	■					■
7					■					
8							■			
9			■			■		■		■
10		■						■	■	■

**Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Umea. Premia.—2. Gogoan sortua (artikuluarekin). Kontsonante baten izena. 3. Orain eta gero (alderantziz). Kontsonantea. Suari darrion gaza (alderantziz eta artikuluarekin).—4. Txori beltza (errepikatuz). Guraso gizona (pluraleko genitiboan). Kontsonantea.—5. Itsasportua. Ukatu partizipioaren infinitiboa (alderantziz). Bokala.—6. Bokala. Kontsonantea. Alferra.—7. Gorputz baten gaineko estalkia (alderantziz). Zeregina.—8. Gorputzarekin batera pertsona osatzen duena (pluralean). Ahalegina, egintza.—9. Nota musikala. Begirada. Bokala. Kontsonantea.—10. Bokala. Barrena, barna, gaindi (alderantziz).

**Goitik behera.** 1. Haizkoraz ebakitzen ari dena.—2. Aberea, zamak eramateko erabiltzen dena (artikuluarekin). Oraindik.—3. Haur. Argi hari mehea (alderantziz). Kontsonantea.—4. Egur tipia (alderantziz). Asmatu partizipioaren infinitiboa (alderantziz).—5. Kontsonantea. Bokala. Joan hadi (alderantziz).—6. Abereek atzean dutena (pluralean). Bokala.—7. Bizkaiko errixka. Ekarri partizipioaren infinitiboa. Izenorde pertsonala.—8. Kontsonantea. Adiskidea (alderantziz eta artikuluarekin).—9. Etxe edo gela batera sartzeko zuloa. Landareak eta animaliak haunditu, nagusitu (alderantziz).—10. Krudela, bihotz gogorrekoa (alderantziz). Zintzoa.

**Goitik behera:** 1. Haizkolaria.—2. Astoa. Are («are gehiago»).—3. Ume. Izpi. R.—4. Abar. Asma.—5. T. I. Hoa. 6. Buztanak. E.—7. Ea. Ekar. Zu.—8. H. Laguna.—9. Ate. Hazi.—10. Anker. On.

**AZALPENAK. Ezker aldetik eskuin aldera:** 1. Haur. Be-  
Arimak. Lan.—9. Re. So («so batez, dena ikusi»). U. H.—  
N.—5. Kai. Uka. A.—6. O. P. Nagi.—7. Azal. Arazo.—8.  
har.—2. Asmatua. Te.—3. Betti. Z. Kea.—4. Zozo. Aiten.  
N.—5. Kai. Uka. A.—6. O. P. Nagi.—7. Azal. Arazo.—8.  
Arimak. Lan.—9. Re. So («so batez, dena ikusi»). U. H.—  
10. I. Zehar («Euskal Herrian zehar»).

## Gizon zapaldua eta kultura

Populu baten egoera zapaltzerakoan, bi soluzio agertzen dira inperialisten jokabidean: asimilazioa, frantsesek Ipar Afrikan egin zuten bezala (hangoei European bertan ere egiten zaiela ahantzi\* gabe) edo ingelesek egindako segregazioa.

Nahiz eta Frantziak bere politikan arrazismorik agertzen ez duen, kolonietako jende eskolatuei ahantzi egin zaie beren kultura propioa, hala nola Algeriako Kateb Yacin idazleari. Munduan «zerbait» izateko, inperialisten kultura ikasi behar dutela sinesten dute edo sinestarazten zaie.

Gizon zapalduaren alienazioa ikertzen\* du Frantz Fanon-ek (ikus «L'oeuvre de Frantz Fanon», Renate Zahar, Petite collection Maspéro). Hark dioenez, gizon guztiek alienazioaren menpean daudelarik, beren baitan\* ondorio desberdinak sufritzen dituzte. Langileak, beste kultura baten menpean egonik, hura\* berea baino hobea dela sinesten du, eta alienatu egiten da; haren baitan «complexe de frustration» delakoa sortzen da, eta, ekonomian gertatzen dena gaizki ulertzen duelarik, ez zaio sortzen gudukatzeko kontzientzia.

Zapaldua egon baino lehen, bere legeak eta biltzarreak zeduzkan herriak; erakunde\* hau kolonialismoarekin ezabatu\* egiten dira. Bertako historia eta hizkuntza, inperialisten eskoletan irakasten ez direlarik, ahantzi egiten dira; herriko ohiturak, kantuak, dantzak... galtzen ari dira. Askatasunerako gerraren garaian, aldiz,\* ohitura hoik\* berpizten hasten dira.

Aurrerapen eta zientzia berriek ere, inperialistenak izanik, gehitu egiten dute herriaren alienazioa, diskriminazio eta humiliazioaren bidez sar erazten baitira.

Gehienetan bertako hizkuntza administrazioan erabiltzen ez delako, goi mailako ogibide bat lortu nahi duten jendeek, zapaltzaileen mintzairaz egin behar dituzte beren ikasketa guztiak. Iraultzaren\* denboran, berriz, haien egoera aldatu egin zen frantses hizkuntzaren aurrean: FLNko irratiak, berriak emateko, arabe, bereber eta frantsesa erabiltzen zituen.

Frantz Fanon-en eritziek, nahiz eta haren obretan bereziki\* Ipar Afrikako kolonialismoa ikertzen den, asko balio dute, mundu guztiko herri zapalduen egoera ezagutzeko.

XANTI LAFITTE

daude, dagoz  
zaie, jake, zaiote

zaio, jako  
zeduzkan, eukazan, zeuzkan

## Sakabi eta Egañazpiri omenaldia Usurbilen

Hirurogei bat trikitilari eta pandero joilek eta frontoia betetzen zuen jendetzak omenaldi bat eskaini zioten Sakabi eta Egañazpi trikitilari famatuei, apirilaren 16an. Egun osoko jaia izan zen: trikiti soinua nonnahi, «Elgeta» zenaren piezak, magnetofonoz hartuak, zikiro\* jatea eta abar. Trikitiaren musika alaia gorabehera,\* ez zen jendea dantzan aritu.\* Musika hau, itxura denez, entzuteko bakkarrik gelditu da.

## «Newsletter» aldizkari berria

Ipar Amerikan, «Newsletter» izenburuarekin agertu berri da aldizkari bat, euskar\* gaiei buruz. Hamar orrialdeko aldizkari hau ingelesez dator, eta William A. Douglass jaunaren zuzendaritzapean agertzen da.

## I. HIZTEGIA

### Ale honetan izartxo batekin agertzen diren berbak

ABURU, eritzi, uste.  
ADABAKI, **remiendo**, **petacho**, pièce rapportée.

AGIAN, beharbada, nonbait, **seguramente**.  
AHANTZ, ahantzi, ahantzu, ahaztu (inperati-boetan).

AHANTZI, ahantzu, ahaztu.  
AHITU, amaitu, bukatu, **extinguir**.  
AHOZKERA **pronunciación**.

AHULERIA, ahulezia, makaltasun.  
ALA, **o qué?**

ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
ALEGIA, **a saber, es decir, esto es**.

ALOR, arlo.  
AMILTEGI, **precipicio**.

ANTZA, dirudienez, **al parecer, por lo visto**.  
ANTZU, **estéril**.

APAILATU, antolatu.  
APAIZKERIA, **clericalismo**.

APAIZTERIA, **clerecia, clérigos**.  
ARAUERA, **según, conforme**.

ARDURA, arta.  
ARDURATU, axolatu, arta hartu.

ARE oraindik, **aún, encore**.  
AREATZA, **Villaro**.

ARITU, ari izan, ihardun.  
ARRAPOSTU, erantzun, ihardespen.

ASKI, nahiko.  
ASTEAZKEN, eguasten.

AT, kanpo, **fuera**.  
ATZERAKOI, gibelkoi, **retardatario**.

AXOLATU, arduratu.  
  
BAHITU, **secuestrar**.

BAIEZTA, baieztatu, **afirmar** (potentzialetan).  
BAITAN, -gan.

BAITHARIK, baitarik, -gandik.  
BAKAN, **raro, poco numeroso**.

BATASUN, elkargo, elkarte.  
BATZUK, zenbait, batzu. (**Batzuek** aktibo, **batzuk** pasibo).

BEDEREN, gutienez, behintzat, behinik behin.  
BEHARGIN, langile.

BEHINEN, **principal**.  
BEREZIKI, batez ere, batik bat.

BESTELAKATU, aldatu, **transformar**.  
BIDE, nonbait, agian.

BIZ, izan bedi.  
BORTU, **paraje montañoso y desierto**.

DAKIKEGU, dakigu nonbait.  
DAUKAKET (dadukaket), **yo tenga**.

DENDA, saltoki.  
DIRAU, irauten du.  
DIREA, dira+a. (**Azken letra aditzari ezartzen zaio galdeetan**).

DONADO, mutil zahar, **soltero**.  
DONIBANE LOHITZUNE, **San Juan de Luz**.

DUEINO, dueno, duen bitartean.  
  
EGINBIDE, **obligación**.

EGITARAU, **programa**.  
EGUN, gaur.

El omen.  
ELE, berba, hitz.

ELKARGO, elkarte, batasun.  
ERABATEKO, **completo, total**.

ERAIKIDURA, **estructura**.  
  
ERAKUNDE, **estructura, organismo, organización**.

ERASO, **atacar**.  
EREDU, **modelo**.

EREMU, **extensión, territorio**.  
ERO, zoro.

EROAN, eraman,  
ERORI, jausi.  
ERRESUMA, erreinu.

ESKRIBA, eskribatu, idatzi (**potentzialetan**).  
ESKUALDE, **comarca**.

ETENDURA, **ruptura, corte**.  
EUSKALKI, **dialecto vasco**.

EUSKALTZAIN, **académico del euskera**.  
EZABATU, **borrar, anular, desaparecer**.

EZAXOLKERIA, arduragabekeria.  
EZELAKO, inolako.

FINKO, sendo, **firme**.  
FUNTS, **fondo, esencia**.

FUNTSEZKO, **serio, profundo**.  
  
GATHAZKA, gatazka, **riña, pelea**.

GENEKUSAN, ikusten genuen.  
GERAKOR, inmovilista.

GERATU, gelditu.  
GERTU, prest.

GISA, era, modu.  
GIZONAREKIKO, gizonari buruzko.

GORABEHHERA, **a pesar, malgré**.  
GOROLDIO, **musgo, mousse**.

GORPU, **cadáver**.  
GUNE, une, alor, arlo, **terreno**.

GURA, nahi, gogo.  
GUTUN, eskutitz, karta.

HALTZ, **aliso (árbol)**, aune.  
HASTAPEN, **principio**.

HAUK, honeek. (**Hauek** aktibo, **hauek** pasibo).  
HAUTU, aukera, **opción**.

HAXE, huraxe.  
HAZIL, **noviembre**.

HEDATU, **zabaldu**.  
HELBURU, **fin, objetivo**.

HERRI-HIZKUNTZA, **lengua popular**.  
HERRIKOI, **popularista**.

HERTSI, hestu.  
HIRIGINTZA, **urbanismo, planificación urbana**.

HOIK, horreek. (**Hoiek** aktibo, **hoiek** pasibo).  
HORREGATIO, hala ere.

HOTS, **a saber, es decir, esto es**.  
HUNTZORRI, huntzosto, **yedra, lierre**.

HURA, ha.  
HURBIL, **cercano, próximo**.  
  
IHARDESPEN, erantzun.  
IHARDETSI, erantzun.

IHARDUKI, **responder, replicar, resistir**.  
IHAZ, igaz, jaz.

IKERTU, aztertu.  
INARRA, **brezo, bruyère (escoba, balai)**.

INKESTA, **encuesta**.  
IRAGAN, igaro, pasatu.

IRAULTZA, **revolución, transformación radical**.  
IRAUNGI, itzali, amatatu.

IRTEN, urten, atera, jalgi.  
IRTENBIDE, urtenbide, jalgibide.

ISATS, **retama, genêt (escoba, balai)**.  
ISTRIPU, **accidente**.  
  
ITAUNDU, galdetu.  
IZAKI, **ser, creatura**.

JADANIK, **ya**.  
JARAMON, kasu.  
JASAN, **aguantar, soportar**.

JAUSI, erori.  
  
KOKATU, **contener, emplazar**.  
KONORT, **sentido, conocimiento**.

LANDA, kanpo, **fuera**.  
LEGEZ, lez, bezala.  
LEKUKO, testigu.

LIZARRA, **Estella**.  
LOR, lortu, ardietsi (**sujuntiboetan**).  
LORTU, ardietsi, erdietsi.

MAKALKERIA, ahuleria.  
MAULE, Zuberoko, **Mauléon**.  
MEMENTO, momentu.

MENDE, **siglo**.  
MINTZO IZAN, mintzatu, berba egin.  
NABARI, nabaritu (potentzialetan); **patente, notorio**.

NABARITU, **notar, percibir**.  
NOSKI, naski, **ciertamente, claro está, desde luego**.

OHI, **ex-** (Presidente ohia, **expresidente**).  
OLDARTU, **atacar, hacer frente**.  
OMEN, ei.

ORGA, gurdi, burdi.  
ORMA, paret. (HORMA, izotz, hielo, glace).  
ORO HAR, oro (guztia) harturik, **en conjunto**.

OROKAR, **general**.  
OSATU, **completar**.  
OSTEGUN, eguen.

OSTERA, aldiz, ordea, berriz; ibilaldi.  
OSTIRALE, bariku.  
  
PAIRATU, sufritu.  
  
SERORA, **sor, monja**.  
SOBERA, gehiegi, larregi.

TXIRRINDULARI, **ciclista**.  
  
XEDE, asmo, helburu.  
  
UDALETXE, herriko etxe.  
UGARITZER, **a punto de proliferar**.

UGAZABA, nagusi.  
UKAN, izan. (**Ukan** aktibo, **izan** pasibo).  
UNGENTU, okendu, ukendu, **ungüento, onguent**.

URRATS, pauso.  
  
ZALANTZA, duda.  
ZARTARAZI, **hacer explotar**.

ZE, zeren, **pues**.  
ZE HAR, gaindi.  
ZENBAIT, batzuk.

ZEREN, ze, **pues**.  
ZIKIRO, **carnero, mouton**.  
ZUHAITZ, arbola.

ZUKETEN, zuten nonbait, **habrian**, auraietn.  
(Aditz forma honi, kazetarien kondizionala deitzen zaio. Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 383).

## II. EUSKARA BATUA

Sustrai-infinitiboa —laguntzailearekin nahiz laguntza-ilerik gabe— beste kasu hauetan ere erabiltzen da:

1. SUJUNTIBOETAN. Zera adierazi nahi denean:

—**helburua**. Adibidez. Ikus dezan; etor dadin.

—**nahia, agindua**. Adibidez: Ez dadila ager; ikus dezala.

—**suposamendua**. Adibidez: Etor baledi; ikus baleza. Gaur etor dadin edo bihar, gu haren zain egongo gara. Medikuek nahiz sorginek senda, guri berdin zaiku. Egia esan (badezat), pozik joango naiz; oro har (badadi), liburu hau oso ona da; oro konta (badezagu), lan asko egin dugu.

—**kontzesioa**. Adibidez: Zer gerta ere (suceda lo que suceda, quoi qu'il arrive); zernahi kosta (cueste lo

que cueste, coûte que coûte).

—**itxaropena**. Adibidez: Horrela zaude deus egin gabe, eritasunak har, heriotzea etor eta ifernura joan.

—**zenbait aditzen konplementua**. Adibidez: Begira hadi (cuídate) gurditik eror; beldur zen, etsaiak berriz ere itzul; gu beldur, antolamendu horretan geure nortasuna gal; apostu egin zuten, Baionatik Hazparnera zein lasterrago sar.

2. IZEN-INFINITIBOAREN ORDEZ. Adibidez: Eror eta xuti gabiltza geure bizitza guztian (erortzen eta xutitzen). Bati lurra ken, besteari eman, katu gizenari buztana motz, katu meheari buztana lot: horrela ez da ezer konpontzen (kantzen, ematen, mozten, lotzen zaiolarik).

# Haritik landa

Gutti edo asko, neurri ttipiangoan edo handiangoan, noiz-bait eta nonbait, guztiok gara haritik landa\* ibiliak. Hau da, gaitik irtenda.\* Bertsolarientzat garrantzi handikoa da gaiari ondo lotzea.

Gabriel Aresti adiskideak ere honelako zerbait egin zeutan ANAITASUNako orrialdeetan, nik Ibon Sarasolari egin nion kritika bide, berak egin zeutan arrapostu\* antzerako batean. Herri hizkuntza euskara bateratuarekin bereiztu nahirik, bateratuarentzat «koine» hitza erabiltzen nuelarik eta bestearentzat **herri-hizkuntza**;\* **hizkuntza herrikoia**\* ez erabiltzearen. Zeren,\* nik dakidanez, literatur arazoetan, **herri-literatura**, **herri-ipuina**, **herri-kantak** eta abar gehiago eta lehenagotik erabiltzen baita, literatura herrikoia baino; eta, gainera, **herriko kanta** inoiz ere ez da erabiltzen.

Huskeria horregatik ez nion jaramonik\* egin nahi. Baina, ikusten denez, batzuetan, jaramonik ezak bere ondoreak dakarzki; eta hauetako bat dela dirudi, Aresti adiskideak **Kaniko eta Belxitina**-ren hitzaurre gisako «Zenbait ele samin»-en jarri duenak. Eta isilik utzi ezinezkoa dut, batez ere, haritik landa doan hitzaurre horretan, niretzat jarri dituen aburu\* faltsuez gainera, beste oinarritzko muga batzuk urratzen dituelako, eta ez jokaririk zintzoenarekin.

Julio Urkixokoari bere ehungarren urteburuan egin nion (eta ANAITASUNA honetan argitaratu zen) gorespeneko artikuluan, batez ere Julio Urkixok RIEV aldizkarian erabili zuen jokabide zientifikoa goratzen nuen, eta, bestalde, zer euskar mota zuen atseginezko adierazi. Hogeitasei urtetan RIEV delakoaren ardura\* bere bizkarrean eramane zuen gizonak horrenbeste merezi zuela uste bainuen. Hutsak ere ba zituen; nola ez. Baina haren huts egiteak oso txikiak izan ziren, haren erakutsien ondoan. Burgesa zen ala ez, ez nuen aipatzen. Hori, J. Urkixo hizkuntzalariaren ekintzatik landa\* zegoen eta beste alderdi batetik begiratzekoa zen. Eta, nire arazoa ez zenez, ez nintzen sartzen haren irabazpideak estudiatzen. Bi gauzak elkarrekin nahastu baino lehen estudiatuko nuke ea Euskal Herriko gainerako burgesek euskal kulturaren alde zer egin duten. Eta bai eta ere, estatu sozialista batzuek ea zergatik gose diren herriei harmazko laguntza ematen dieten, ogizkoa eman beharrean. Baina, bide honetatik, Arestiren bekatu berean eroriko\* nintzateke, haritik landa.

J. Urkixok Zuberoko pastoralei buruz zioena, egia esan, ez nuen ezagutzen. Eta aitor dezadan, puntu horretan ez nagoela harekin bat. Bat ez nentorren bezala, Maulen\* Salaberriren ohorezko jaialdiaren ondorean Zuberoko kantak gustatu ez zitzaizkion G. Arestirekin. Nire ustean, **Kaniko eta Belxitina** pastoraleko poemak baino askozaz hobeak zirenak (eta nire aldetik ez diot ezer kentzen Jakes Oihenarteren pastoral honi; eta bai esan beharrez naiz, asko ere asko gustatu zaidala). Lekukoak\* ditut, han bertan nola izan genuen elkarren arteko eztabaida, ni herri-kanta haien alde, eta Aresti isilerazi nahirik, aspergarriak zirela eta.

Beraz, ni ez nago, Zuberoko pastoralen kontra mintzatu zen Urkixorekin, Zuberoko herri-kanten kontra mintzatu zen Arestirekin ere ez nagoen bezala.

Baina ba da besterik ere. Urkixok pastoralei buruz bere eritzi merkeak bazituen ere, Arestik berak aitortzen du, hura G. Hérelle-rekin batean hasi zela pastoralen katalogogintzan. Baina garrantzizkoagoa da oraindik, Urkixok pastoralei buruz G. Hérelle-ri RIEV aldizkarian eman zion tokia. Gaur egun, pastoralei buruzko jakintza batekin hornitzeko, behar beharrezkoa zaiku estudio hauetara jotzea. Hobeto esan, Urkixoren zuzendaritza-pean atera zen RIEV-era. Aldizkari honen lehen urtetik gainera. Eta, estudio hauetan oinarriturik, hobe zuen Arestik, J. Oihenarteren **Kaniko eta Belxitina** izeneko pastoralari behar bezalako hitzaurre bat egin bazion, irakurlearen argibiderako. 1907tik 1926ra bitartean, hamar aldiz eman zituen Hérellek pastoralei buruzko lanak aldizkari hartan.

Bestalde, bai eta ere esan beharra dut, bi lanetan bildu zituela lanok, **La représentation des Pastorales à sujets tragiques** (Paris, 1923) eta **Les Pastorales à sujet tragique, considérées litterairement** (Paris, 1926), nik dakidanez.

Hemen pastoralei buruz gutti dakigunok, liburuaren funtsa behar bezala ulertzen lagunduko zeukun hitzaurre bat gehiago estimatuko genuen. Zeren\* Arestiren hitzaurre gisako hori ez baita liburuaren lagungarri. Gauza handiak esan nahi ditu pastoralen alde; baina, ezer argitzen ez duenez (hainbeste, haritik landa ihardunez), irakurleak ez daude seguru obra hain ona denik, eta guttiago pastoralara bere funtsean\* zer den.

Niri asko gustatu zitzaidala esan dut, eta hau Vinson-en **Le Folk-Lore du Pays Basque**-ren seigarren kapituluari esker; zeren,\* **Kaniko eta Belxitina** liburuaren irakurketan hain ilun nenbilalarik, bertara jo bainuen argiaren bila. Hemen, geure inguruko giroan, horrelako argibide bereizi batzuk\* behar baititugu, pastoralara bat batean ulertzeko.

Beraz, Arestiren hitzaurreak ez dio lagundu obra horri.

Aresti adiskideak, berak jakingo du zergatik egin duen horrela, bata eta bestearen kontra ikaragarriak esatetik aparte, beste gauza batzuk ere alderantziz ager eraziz. Arestirentzat ez ezik, besterentzat ere ba da hor «zenbait ele\* samin».

Hala, pena da hitzaurre hori osorik ez egotea. Lehen partean eten bat somatzen da, eta orrien numeroetan ere hori nabari\* da. Honegatik, Arestiren «errealitate» kontu hori ezin dugu ongi ulertu; eta, ulertzen den partean, ba dirudi errealitatea den bezala ez dagoela, edo, hobeto esan, adierazi behar zuela bera Eibarren soldatapean egon zen lantegi hartako ugazaba\* ez zela ez eibartarra, ez euskalduna, eta bai Arestik ongi dakien alderdi jakin batekoa, aberastu zen arte. Eta hau ere munduko errealitatea zen, Arestik berak salatzen ditueenez gainera, ahaztu ezinezkoa. Baina ttikikeria hoietan galdu egingo gineteke, eta hobe alde batera uztea.

Dena dela, Arestik ez du egokitasunez agertu bere hitzaurre hori. Bere barneko problematikan ez zaio faltako zer esanik, eta arrazoirik aski\* ere izango du; baina liburu horren hitzaurreari ez deritzagu, gauza hoik\* esateko tokirik egokiena.